



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO IRAILAREN 18AN**  
**EGUERDIKO 14:00ETAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Irene Gartzia Palacios.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Alaitz Aizpurua Labakak eta Josune Estella Arranzek.

**1.- 2016/2017 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Esp.zenb.: KE01/2017-0139

**Ikusirik**

2017ko ekainaren 14an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016/17 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 26an hasi eta uztailaren 7an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 35 eskaera jaso ziren.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2017ko uztailaren 27an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2016/2017 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntzen inguruan.


Ebazpen proposamena abuztuaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

**Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2016/17 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2017/06/14)
- Diru-laguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2017-08-14)



Usurbilgo Udala

- Kontuhartzailletza Sailaren ziurtagiria.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2016/17 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea eta ordainketak bideratzea.

| Izen abizenak                      | Diru-laguntza |
|------------------------------------|---------------|
| Maribel Mena Azpillaga             | 466,60 €      |
| Isabel Torres Lara                 | 442,00 €      |
| Mari Jose Martinez de Godos        | 0,00          |
| Mari Jose Martinez de Godos        | 500,00 €      |
| Edison Martin Fernandez Bustamante | 459,00 €      |
| Anne Utrera Sanchez                | 466,60 €      |
| Maria Mar Estella Arranz           | 500,00 €      |
| Francisca Navarro Guadix           | 72,36 €       |
| Irati Bordagaray Martija           | 500,00 €      |
| Gema Molina Cuesta                 | 466,60 €      |
| Garazi Lizaso Manterola            | 500,00 €      |
| Maria Jesus Iglesias Rio           | 0,00 €        |
| Maria Jesus Iglesias Rio           | 500,00 €      |
| Agurtzane Solaberrieta Mesa        | 276,00 €      |
| Eva Tames Ibarguren                | 500,00 €      |
| Maria Victoria Cobo Rodriguez      | 500,00 €      |
| Arantxa Rabano Rubio               | 427,00 €      |
| Nuria Larrañaga Rubio              | 459,00 €      |
| Elixabete Lazkoz Fernandes         | 427,00 €      |
| Ines Martinez Crespo               | 436,00 €      |
| Iñaki Murguia Garmendia            | 436,00 €      |
| Karmele Lizeaga Alcantara          | 357,00 €      |
| Ane Porrás Eizaguirre              | 427,00 €      |
| Ana María Arostegui Usobiaga       | 459,00 €      |
| Ramon Carro Luengo                 | 436,00 €      |
| Agustin Dominguez Marquez          | 436,00 €      |
| Felicidad Santana Rubio            | 459,00 €      |
| Francisco Javier Espina Roman      | 459,00 €      |
| Aritz Zubiaur Blasko               | 500,00 €      |
| Ainhara Sedeño Arruti              | 357,00 €      |
| Amaia Murugarren Merino            | 436,00 €      |



Usurbilgo Udala

|                                |                   |
|--------------------------------|-------------------|
| Oihana de la Mata Pulido       | 352,00 €          |
| Iñigo Mutiloa Baztarrika       | 427,00 €          |
| Feli Holgado Harto             | 357,00 €          |
| Jefferson Cañizares Mildestein | 0 €               |
| <b>GUZTIRA</b>                 | <b>13796,16 €</b> |

**Bigarrena:** Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4200.480.335.00.01.2017 (A235/2017)

**Hirugarrena:** Kontuhartzaileari akordioaren berri ematea.

**Laugarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**Bosgarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

## **2.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.22 EXEKUZIO UNITATEKO ETXEA ORDEZKATZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0452

EVA MARIA UGARTEMENDIA GORRITI andereak eta XABIER ECENARRO BALDA jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.22 Exekuzio Unitateko etxea ordezkatzeko udal baimean eskatu dute.

| <b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>   |   |
|--|---|
| Exekuzio materialeko aurrekontua:                                      | 161.380,00 €  |
| Obrari dagozkion hobariak:   | Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak. |
| Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:                                    | Aurrekontua: 1.035,80 €   |
|  | Fidantza (%120): 1.242,96 €.  |
| Urbanizazio kargengatik Udalari eman beharreko konpentsazio ekonomikoa | 2.680,20 €  |

### OINARRIZKO ETA EXEKUZIO PROIEKTUA

2017ko uztailaren 7an, dagokion udal baimena eskatzearekin batera, MAIDER ROMO ARIZMENDI arkitektoak idatzitako Oinarrizko eta Exekuzio Proiektua aurkeztu dute.

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, honako txostena eman du:



Usurbilgo Udala

UA2017\_04\_28

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**OBRA HAUNDIAK**  
**A-107 IARTZA EREMUKO 107.22 HEU-KO ERAIKINA**  
**ORDEZKATZEKO EXEKUZIO ETA OINARRIZKO**  
**PROIEKTUARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: A-107 IARTZA, 107.22 HEU, Usurbil.  
ESKATZAILEA; Eva Ugartemendia Gorriti.  
ESKAERA DATA; 2017ko uztailaren 7  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2016OHAN0001  
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 161.380,0euro.  
**HONDAKINEN KUDEAKETA: 1035,8euro**  
**FIDANTZA (%120): 1.242,96EURO.**

---

### 1.- AURREKARIAK

- 2017ko uztailaren 7an Eva Ugartemendia Gorriti andereak, A-107 IARTZA eremuan 107.22 HEU unitateko eraikina ordezkatzeko Exekuzio eta Oinarrizko Proiektua aurkeztu du Usurbilgo Udalak izapidetu dezan.
- 2017ko abuztuaren 4an Zerbitzutako buruak txostena eman du.
- 2017ko irailaren 7an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Erlazionatuak:

HZ.13/2016-0161 Iartza A-107 eremuko 107.22 unitatean eraikina berregiteko aukeraz galdera.

HZ.01/2016-0451: A-107 Iartza eremuko HEU 107.22 unitateko Xehetasun Azterlana: Usurbilgo Udal Plenoak behin betikoz onartua 2017ko ekainaren 27an.

HZ.12/2017-0366: HEU 107.22.an lagapeneko 44.67 m<sup>2</sup> bereizteko baimen eskaera.

### 2.- TXOSTENA

Eva Ugartemendia Gorriti andereak, A-107 IARTZA eremuan 107.22 HEU unitateko eraikina ordezkatzeko Oinarrizko eta Exekuzio Proiektua aurkeztu du Usurbilgo Udalak izapidetu dezan. Proiektua arkitektoak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia aurkeztu da (COAVN 2017 07 06). Proiektua osatzen dutenak dira: memoria, araudiaren justifikazioa, urbanizazio obra gehigarrien eranskina, planuak, Osasun eta Segurtasun Oinarrizko Azterlana, aurrekontua,



Usurbilgo Udala

eraikuntzaren ziurtagiria energetikoa, Kalitatearen Kontrolerako Plana eta Baldintza Plegua.

Aurkeztu den proiektuaren helburua da: *“consiste en la sustitución del actual edificio residencial, planteando un edificio de mayor ocupación en planta baja, manteniendo la actual edificabilidad de la parcela. A su vez, se adaptan los accesos al edificio, zonas de maniobra y aparcamiento resultantes de las nuevas alineaciones planteadas para la nueva edificación. Eñ programa a desarrollar consiste esquemáticamente en una planta baja donde se desarrollan un acocina, comedor, sala de estar, distribuidor, tres baños, tres dormitorios, un porche y un garaje.”*

Iartza 107.22. exekuzio unitatea, indarrean diren AASSTB-ren arabera hiri lurzoruan kokatzen da, A-107 Iartza eremuan hain zuzen.

Proiektua aurkeztuta honakoak esan daitezke:

#### HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:

##### 1. AASSTB-ko 107 IARTZA HIRIGINTZA FITXA:

| parametroa   | AASSTBko 107 IARTZA hirigintza fitxa | Exekuzio Proiektua |
|--|--------------------------------------|--------------------|
| Eraikigarritasuna<br>(aurkeztutako dok. Gehigarriaren arabera) | Gehienez egungoa                     | BETETZEN DA        |
| profila  | Gehienez egungoa                     | BETETZEN DA        |

##### 2. 107.22. eremuko Xehetasun Azterlana:


| parametroa   | 107.22. eremuko Xehetasun Azterlana | Exekuzio Proiektua |
|--------------|-------------------------------------|--------------------|
| Lerrokadurak | Ikus planoak                        | BETETZEN DU        |
| sestrak      | Ikus planoak                        | BETETZEN DU        |
| ebakidurak   | Ikus planoak                        | BETETZEN DU        |



Usurbilgo Udala

**Oharra: Edonola, egikarituko den obrak ezinbestean bete beharko ditu indarrean den araudiak ezarritako hirigintza parametroak eta beraz, hala badagokion, obrak egokitzapenak egin beharko dira helburu hori beteaz.**

- EKT-REN BETEZEA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA: Betetzen dela justifikatu da. Edonola, proiektuaren erredaktatzailearen erantzukizunaren baitan gelditzen da, ezinbestekoa izanik hura betetzea.
- LURSAILAREN ITXITURAK: Lursailaren itxiturak AASSTB-k 37. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute, honakoa: “landarezko hesiaz edota 0,5 mtako altuera duen zokaloaz, harritasun burutua eta, honen gainean, metalezko ziridun itxituraz edo ta material berbereko diseinuaz, haren gehieneko altuera behe solairukoarena izanik. Itxitura landarezko elementuez osa daiteke.”
- LURSAILAREN EURI UREN JASOTZEA: Lursail eraikigabeen, euri uren jasotzea lursailaren mugetan, mugen barne egin beharko da.
- BETELANAK: Lur mugimenduak direla-eta, proiektuko sestra eta ebakidurak lotzeko betelanik egin beharko balitz, bertako lurra erabaili beharko da.
- LAGAPENA: lagapena egingo den azalera eta eraikuntza berriak sortzen duen sestra aldaketa dela-eta, lursailaren itxitura parean egingo den euste-hormaren mugan, lagapeneko azalaren euri uren jasotzea bermatu beharko da, horretarako dagozkion azpiegitura hodiak eta gehigarriak ezarriaz. Hortaz gain, **urbanizazio kargei dagokion konpentsazio ekonomikoa da: 2.680,2eurotako** (ikus dagokion txostena).
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.035,8 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.242,96€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete



Usurbilgo Udala

- Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.
- Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.
- 
- ZUINKETA AKTA: Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da eta udal aparejadorearekin ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- ZERBITZUAK: Azpiegitura eta zerbitzuetan izan lezakeen eragina, Zerbitzu Saileko buruaren txostenera bideratzen da.
- BESTEAK: Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.). Horren inguruan, esan beharra dago, txosten honetan aipatzen ez den gabezia edo lege hausterik balu proiektuak, txosten honek ez duela inplizituki ontzat ematen eta ezinbestean, obra egikaritzan zuzendu beharko dela.

### 3.- ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, 107.22. unitatean eraikina ordezkatzeko Oinarrizko eta Exekuzio Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, aipatutako baldintzapean.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2017ko irailaren 7an  
UDAL ARKITEKTOA  
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

### URBANIZAZIO KARGEN KONPENTSAZIOARI DAGOKION TXOSTENA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, honako txostena eman du Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.22 Exekuzio Unitateari dagokion urbanizazio kargen inguruan:

UA2017\_04\_032

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**OBRA HAUNDIAK**  
**A-107 IARTZA EREMUAN (UE 107/22) EGIKARITZA**  
**UNITATEAREN DAGOKION URBANIZAZIO KARGA UDALARI**  
**KONPENTSAZIO EKONOMIKO GISA EMATEKO TXOSTENA**

---

KOKAPENA: A-107 IARTZA, 107.22 HEU, Usurbil.



Usurbilgo Udala

ESKATZAILEA; Eva Ugartemendia Gorriti.  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2016OHAN0001  
ESKAERA DATA; 2017ko uztailaren 7

---

## **AURREKARIAK**

Ikus 2016OHAN0001

Erlazionatuak. HZ12/2017-0366

## **TXOSTENA**

Eva Ugartemendia andereak, A-107 lartza eremuan, UE 107/22ean, obra baimena eskatu du, haren barne espaloi eremurekin batera. Azalera horri dagokion urbanizazio karga Usurbilgo Udalari konpentsazio ekonomiko gisa eman zaio lartza eremuan beste HEU batzuetan ere (ikus HEU 107.10 eta HEU 107.11), ondorioz, kasu honetan ere konpentsazio ekonomiko hori aplikagarria da.

Udalak jada lartza eremuko beste Egikaritza Unitate horietan onartutako urbanizazio kargaren konpentsazio ekonomikoak ikusita, irizpide berak ezarrita, lartza eremuko UE 107/22 Egikaritza Unitaterako 2.680,2euroko konpentsazio ekonomikoa irtetzen da, Urbanizazio Proiektua onartu eta Udalak urbanizazio obrak egikaritu ostean, koste errealaren arabera beharrezkoak liratekeen egokitzapenen kalterik gabe.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2017ko irailaren 7an  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2017ko abuztuaren 4an ondoko txostena eman du:

### **MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA**


**ESKAERA:** Eraiki behar den etxebizitzaren Udal zerbitzuei dagozkien lotuneen txostena

**ESKATZAILEA:** Hirigintza saila

**KOKAPENA:** Kalezar sabakanatuak 46 (A-107 C/SE lartza eremua)

**ESP. ZENB:** HZ.04/2016-0452






Usurbilgo Udala

## TXOSTENA

Kalezar sakabanatuak 46 (A-107 C/SE lartza eremua) etxeko exekuzio proiektuko, Udal zerbitzuetako sareetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du Hirigintza sailak.

Aurkeztutako proiektuan jasotzen da ur-kontagailuen kokapena, eta ur zikinak eta euri urak "hasta red general" adierazten duen planoan.



2017ko urtarrilaren 23an alkateak jakinarazpena bidali zuen, besteen artean hurrengoak eskatuz:

**Ur zikinak:** Etxeko ur zikinak bideratzeko, ur zikinaren sare publikoan lotunea egiten den puntua adieraziko da.


**Euri urak:** Etxeko euri zikinak bideratzeko, euri uren sare publikoan lotunea egiten den puntua adieraziko da.

### **Ur-hartunea:**

Aurkeztutako proiektuan jasotzen den ur-kontagailuaren kokapena "en cierre de parcela".



Usurbilgo Udala



Ur hartuneak hurrengoak beteko ditu:

1. Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoaren adieraziko duten tokian.
2. Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
3. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
4. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
5. Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila, babesteko hormigoizko blokezko nitxoan eraikiko da.
6. Ura hartu baino lehen, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena aurkeztuko da.
7. Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea.
8. Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa homitzaileen bidez.
9. Hondatzen diren materialak birjarriko dira.

2017ko abuztuaren 4an  
Zerbitzu eta Mantenua saileko burua  
*Felix Aizpurua Arzallus*

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** EVA MARIA UGARTEMENDIA GORRITI andereari eta XABIER ECENARRO BALDA jaunari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza)



Usurbilgo Udala

Eremuko HEU 107.22 Exekuzio Unitateko etxea ordezkatzeko udal baimean ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

1. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.035,80 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.242,96 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**1.242,96 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2016-0452*" jarriaz kontzeptuan.

2. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.22 Exekuzio Unitateari dagokion urbanizazio kargen konpentsazio ekonomiko bezala, interesatuek Udalari 2.680,20 € ordainduko dizkie, Urbanizazio Proiektua onartu eta Udalak urbanizazio obrak egikaritu ostean, koste errealaren arabera beharrezkoak liratekeen egokitzapenen kalterik gabe.

- Obrak hasteko, udal aparejadorearekin ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- MAIDER ROMO ARIZMENDI arkitektoak 2017ko ekainean (EHAEO 2017-07-06) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Lursailaren itxiturak AASSTB-k 37. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute, honakoa: "*landarezko hesiaz edota 0,5 mtako altuera duen zokaloaz, harritasun burutua eta, honen gainean, metalezko ziridun itxituraz edo ta material berbereko diseinuaz, haren gehieneko altuera behe solairukoarena izanik. Itxitura landarezko elementuez osa daiteke.*"
- Lursailaren euri uren jasotzea. Lursail eraikigabean, euri uren jasotzea lursailaren mugetan, muga barne egin beharko da.
- Betelanak. Lur mugimenduak direla-eta, proiektuko sestra eta ebakidurak lotzeko betelanik egin beharko balitz, bertako lurra erabili beharko da.
- Lagapena. Lagapena egingo den azalera eta eraikuntza berriak sortzen duen sestra aldaketa dela-eta, lursailaren itxitura parean egingo den euste-hormaren muga, lagapeneko azaleraren euri uren jasotzea bermatu beharko da, horretarako dagozkion azpiegitura hodiak eta gehigarriak ezarriaz.



Usurbilgo Udala

- Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionez, Zerbitzu eta Mantenu saileko buruak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, ezarritako baldintzak beteko dira.

UR SAREA. Ur hartuneak hurrengoak beteko ditu:

- Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
  - Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
  - Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
  - Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
  - Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila, babesteko hormigoizko blokeko nitxoan eraikiko da.
  - Ura hartu baino lehen, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena aurkeztuko da.
  - Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea
  - Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoek bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa homitzaileen bidez.
  - Hondatzen diren materialak birjarriko dira.
- Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.). Horren inguruan, esan beharra dago, txosten honetan aipatzen ez den gabezia edo lege hausterik balu proiektuak, txosten honek ez duela inplizituki onzat ematen eta ezinbestean, obra egikaritzan zuzendu beharko dela.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
    - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
    - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
    - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
    - a) Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarritako baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Obralari Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.



Usurbilgo Udala

- b) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.  
  
1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
  - c) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
  - d) Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
    - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
    - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
    - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
    - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 14:15ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**